



Josu Amutio eta Amaia Arana garaile XX. San Estebango Herri Krosean

TOLOSA ▶ Javier Colomo tolosarra eta Leire Baraibar aresoarra izan ziren bi eskualdeetako lehenak 380 parte-hartzaile izan zituen proban ▶ 4-5



Lehen hiru emakumezkoak eta gizonezkoak sari banaketan, udal ordezkariekin eta antolatzaileekin, atzo eguerdian. NAIARA GARZIA

TOLOSALDEA ▶

Hainbat ikastetxek ez zituen atek itxi

«Ezer ospatzeko ez dugulako» ez zuten jai egin atzoko egunez ▶ 4

TOLOSA ▶

Etorkin adingabeen egoera aztergai

Neurriak ez direla nahikoak izan onartu du Foru Aldundiak ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Olaederra A taldekoen hasiera bikaina

Mahai-tenis ligako lehen bi partidak irabazi dituzte ▶ 3

TOLOSA ▶

Ekitaldiz beteriko egitaraua gaur, Berazubiko jaietan

Paella txapelketa, bazkaria eta umeen jolasak izan ziren atzo, besteak beste ▶ 2



Paella prestatzen, atzo. n.g.

Kimetz

denda berria

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

HEZKUNTZA ▶



Elkartrukeko 54 ikasle Tolosan

Harriet Belloso ▶ Azken egunetan elkartrukeetan murgildurik egon dira Hirukiden. Urriaren 4ean, 43 ikasle poloniar eta 11 ingeles iritsi ziren Tolosara. Urtero bezala, Euskal Herria erakutsi diete eta hemengo familien etxeetan izan dira gure nortasuna eta ohiturak ezagutzuz. Ingeles ikasleekin irratsaio bat ere grabatu zuten Goiko irratan. 5 irakasle ere etorri dira, eta hauekin «harreman sendoa» izan dute Hirukideko irakasleek. HITZA

AISIA ▶

Jai giro polita Berazubi auzoan

Goizean goizetik festa izan zen atzo nagusi Tolosako auzoan

ERREDAKZIOA

Herenegun ekin zieten Berazubi auzoko jaiari. Buruhandiak, trikitilariak, perkusioa, afaria, bakarrizketak eta kontzertuak izan ziren, besteak beste. Atzokoan ere festa giroa izan zen nagusi Tolosako auzoan. Herriko dultzaineroak izan ziren jai giroa zabaltzen lehenak. Eguerdi parterako paellak

prestatzen hasiak ziren txapelketan parte hartu zuten sukaldariak. Noski, paella jatea izan zuten gero bazkarian. Arratsaldean haurrentzako egitaraua prestatu zuten antolatzaileek; lehendabizi jolasak, eta ondoren ipuin kontaketa saioa izan zuten. Eta kontzertuek ere ez zuten hutsik egin.

Gaur ere ekitaldi ugari zuten egitaraua izango da.



Goian paellak prestatzen atzo eguerdian, eta beheko irudietan, jende ugari barraketan. N. GARZIA

EGITARAUA ▶

URRIAK 13, GAUR
14:00. Mus txapelketa.
17:00. 3x3 futbito txapelketa gazteentzat.

19:00. Tortilla lehiaketa.
00:00. Disko festa plazan.
04:00. Sorpresa txosnan.
06:00. Txokolatada plazan.

12:00. Auzo-toka. Emakumeen txapelketa.
14:00. Auzo bazkaria, babarrun jana.
17:00. Zezenak eta poniak zezen plazan.
20:00. Luntxa adinekoei eskainia.

URRIAK 14, BIHAR
Goizean. Herriko dultzaineroak auzoan zehar.

iragarki laburrak ▶

Golden Apple, Quartz & Karpingop

URRIAK
13
LARUNBATA
17:00

TOLOSA

LEIDOR

Karabás

Barco

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

ETA ORAIN
PROBIURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

LANA
Sukaldaria. Larunbat gauetarako sukaldaria nahi nuke. Karta. Tolosaldean. 606 61 52 93.

egongela eta sukaldea. Dena kanpoaldera. Partikularren artean. 45 milioi. Deitu 686 95 90 64 telefono zenbakira.

SALGA!
Etxebizitza berritua Rondilla kalean. Bi logela, komuna,

BESTERIK
Zakurrak. Arraza oneko bi zakur oparitzen ditut. 615 78 96 31.

ANOETA ▶

Ipuin kontaketa saio ugari antolatu dituzte

Hainbat ipuin kontaketa saio izango dira urriaren nahiz azaroaren. Urriaren 17an eta 31n, esaterako, Maite Franko ipuin kontalaria ariko da HH2 eta HH3ko ikasleen aurrean. Urriaren 23an eta azaroaren 13an, berriz, Itziar Zubizarreta izango da LH1 eta LH2ko ikasleei ikuskizuna eskainiko diena. Ipuin kontaketa saio guztiak 18:00etan hasiko dira, eta Udal Liburutegian izango dira. Anoeta-ko Udalak puntualitatea eskatu du.

ANOETA ▶

Dantza Soka Eguna prestatzeko bilera

Duela lau urte hasi ziren Anoetan dantza soka berreskuratzeko lanetan, eta urtetik urtera handituz doa Dantza Soka Egunean parte hartzen duten herritarren kopurua. Iaz, esaterako, ia ehundik gora lagun batu zituen ekitaldiak. Aurtengo Eguna urtarriaren 26an izango da. Horretarako, ordea, aurrez presaketak burutu behar dira, eta lehen bilera datorren asteartean, hilaren 16an egingo dute, 19:30ean Anoetako udaletxean.

TOLOSA ▶

'Ipuinaratean II' proiektua gaur aurkeztuko dute

Ipuinaratean II erakusketaren eta liburuaren aurkezpena izango da gaur, 19:00etan Aranburu Jauregian. Aurkezpenaren ostean, goizaldera arte luzatuko da festa Santa Maria plazan (Zerkausian eguraldi txarra egiten badu). Alurr dantza taldea, Pina Bessosa Ekuatore Gineako musika eta dantzak, Mulambo batukada taldea eta Paula Fleming DJa izango dira, besteak beste. Bestalde, proiektuko artistek zuzenean pintatuko dute.

MAHAI-TENISA ▶

CD Olaederra A taldekoak denboraldi berria bi garaipenekin hasi dute

Pasa den asteburuan Kraft Atletico taldearen aurka 4 eta 1 irabazi zuten Usabal kiroldegian



Ezker-eskuin: Eric Diez, Txema Armentia, Mikel Martin eta Emiliano Anton Usabal MT-Tolosakoak, eta Claudio Izquierdo, Javier Herrojo eta Fernando Oteo CTM Basauri taldekoak. HITZA

ERREDAKZIOA

Denboraldi hasiera bikaina egin dute autonomien mailan CD Olaederra TM A mahai-teniseko jokalariek. Pasa den asteburuan Kraft Atletico San Sebastian donostiarren aurka jokatu zuten, eta 4 eta 1eko garaipena erdietsi zuten. Bi jardunaldi jokatu dituzte eta biak irabazi, eta ondorioz, sailkapeneke lehen postuan daude.

Ezin gauza bera esan CD Olaederra TM B taldeari buruz. Hauek Bilbon jokatu zuten Artxandako-Rekalderen aurka eta 4 eta 1 galdu zuten. Bestalde, bigarren mailako Usabal MT-Tolosa taldekoek ere ez zuten garaipenik lortu. Etxean jokatu zuten Basauriren aurka eta 3 eta 2 galdu zuten.

Asteburu honetan ez da ligako partidarik, baina Gipuzkoako Lehen Piramidalean ariko dira eskualdeko jokalariek.



Dantza Soka Eguna iaz. m.s.

TOLOSA ▶

'Sigo como Dios' filma ikusgai asteburuan

Sigo como Dios filma izango da ikusgai asteburu honetan Leidorren. Gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi, ikuslearen egunean, 20:30ean izango dira sioak. Bestalde, gaztetxoek zuzenduriko filma ere izango da asteburu honetan. Hain zuzen ere, *Los cuantos fantásticos* y *Siver Surfer* izango da bihar, 17:00etan.

TOLOSA ▶

Bertso kabareta izango da hilaren 19an

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak bertso kabareta antolatu du. Hain zuzen ere, hilaren 19an, ostiralean, izango da ekitaldia. Fronton kafetegian. 23:00etan hasiko da emanaldia. Aitzol Udal Euskaltegiak bere sorreratik 25 urte bete direnean hainbat ekitaldi antolatu ditu aruten urteurrena dela eta.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

«Etorkin adingabeen gaineko neurriak ez dira nahikoak izan»

Foru Aldundiak etorkin adingabeen kopuruak gorantz egin duela eta, bederatzi zentro berri egokituko dituela esan du

ERREDAKZIOA

Tolosako adingabeko etorkinen zentroan izandako gertarak argitzea eta beharrezko azalpenak ematea exijitu zioten PSE-EE, Ezker Batua eta Aralar alderdiko batzarkideek Giza Politikarako diputatuari duela bi aste, eta herenegun hitz egin zuen gaiaren inguruan Maite Etxanizek.

Batzarkideek eginiko eskakera onartu egin zuen eta zentroaren egoera bertatik bertara ezagutzeko bisita egun bat antolatuko zutela azaldu zuen Etxanizek. Izandako iskanbilan inguruan, bost adingabe izan zirela sortu zutenak esan zuen eta hauek berehalaxe herri bateko zentro batera eraman zituztela argitu zuen. Sevendenea zentroko instalazioei dago-kionez, pasa den hilabetean hasi zirela bertan berrikuntza lanean azaldu zuen. «Obrek 120.000 euroko aurrekontuan izango dute; dagoeneko aruten 98.556 euro erabili dugu ekimenduan», gehitu zuen.

Hutsune handiak

Giza Politikarako diputatuak, bestalde, onartu zuen Gipuzkoara isten diren etorkin adingabeen kopuruak asko egin duela gorantz eta «hartu ditugun neurriak ez dira nahikoak izan». Hala, egoera hobetu nahian, bederatzi zentro berri egokituko dituzte Gipuzkoan. Horietako bi aruten irekitzea espero diute, eta beste zazpiak hurrengo urtean.



Sevendenea zentroa. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Kubari buruzko filmak astelehenetik

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako departamentuak lagunduta, Mugarik Gabe Garapenerako Gobernu Kanpoko erakundeak sentiberatasun zinema zikloa antolatu du. Kuba izango du ardatz zikloak eta Tolosan, Mutrikun, Seguran, Zumarragan, Azpeitian eta Elgoibarren izango dira emanaldiak. «Gipuzkoarrek kontzientzia kritiko handiagoa har dezaten munduko beste herri batzuetan zehar jasaten diren giza eskubideen urraketen inguruan eta, aldi berean, egoera aldatzeko parte hartu dezaten» da ekimenaren helburua. Benetako Kuba erakutsiko duten lanak Tolosako Kultur Etxean izango dira ikusgai hilaren 15etik 18ra. 20:00etan izango dira saioak doan. Etzi *Montaña de luz* eta *La Chivichana* izango dira ikusgai.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KRISTINA SARALEGI ▶ BASERRITARRA

«Baserriko lana gogorra da, baina badu abantailarik, ez dizutela agindurik ematen»

Baserriko lana gogorra den arren, baserritik kanpo bizitzea ez du pentsatu ere egiten
Kristina Saralegik; gustura bizi da natura eta etxe aberez inguratutik

IRENE ARRIZURIETA (Berria)

Leitzalarreko mendietatik etorri berria. Aurrerako utzi dituen behor batzuk erakustera joana zen erostun batzuei. Eguna hotz esnatu da eta elkarriketa baserriko sukaldean egitea erabaki dugu. Gurasoek Leitzan utzitako baserrian, Arron, bizi da jaio zenetik Kristina Saralegi (Tolosa, 1974). Sei senideen artean gazteena, baserria du bizileku eta ogibide. Irribarretsu, azkar eta asko pentsatu gabe erantzun ditu galderak. Atarian antzarak manifestazioan dabilta, ultzi batean.

Nola hasten duzu eguna?

Zazpiak aldera jaikitzen naiz egunero eta baso bat esne hartzen dut. Ondoren oiloetara jotzen naiz, jatekoa ematen diet eta oilategiko atea irekitzen diet. Hortik ukuilura noa aziendak gobernatzera. Deusen okerrik ez bada, aziendan lanak bederatzietarako edo bukatuak izaten ditut. Orain oraindik ez dago hainbeste lan ukuiluan. Negua iristen denean okerragoa izaten da.

Zergatik izaten da lan gehiago neguan?

Azienda guztia etxean egoten da. Denak gobernatu behar dira. Oiloak, behiak, miatxoak eta zezenak, zaldiak, astoak eta aurrerako titudan behorak. Orain sei asto ditut eta hiru behi ditut ukuiluan. Denei pentsua eman eta normalean, non eta eguraldi oso txarra ez den, denak belatsura bidaltzen ditut. Gero iluntzean berriz, denei belarra jarri eta ukuilura sartzen ditut.

Zerk ematen du lan handien?

Azpiak ateratzea da gogorre-na. Pentsuak eta belarra ematea erraza da baina azpiak ateratzea nekoso da oso. Eguraldi ona bada hilabete batean ez zara behartzen azpiak ateratzen baina eguraldi oso txarra bada astero ater behar dira.

Animalien lana bukatu eta zer egiten duzu?

Gosaldu. Bi arrautza egosi edo york urdaiazpikoa gosaltzen dut. Ez dut deus berezirik jaten, gainerakoan atzealdera jotzen baita.

Emakume batek bakarrik baserria eramatea ez da lan



BASERRIAN

«Duela 12 urte aita hil zen; amak bakarrik ezin zuen dena eraman eta amari laguntzeko gelditu nintzen»

erraza izango. Nola moldatzen zara?

Arazoren bat badut anaien laguntzen didate. Eguneroko martxarako ez dut inor, baina belarrak egiteko laguntza izaten dut, gainerakoan uda osoa belarretan emanen nuke, fardo biltzen. Ebaki eta bueltatu aise egiten dut, eta fardelak egiten ere aritzen naiz, normalean anaia bategi egiten dituen arren. Baina fardelak biltzeko laguntza behar dut, 40 fardel edo gehiago bakarrik biltzea zaila da, ez nuke sekulan bukatuko. Hiru baserrietako lurrak eta Leitzalarrean ditugun bi bordetako sei belatsuak erabiltzen ditugu. Hasialdi bakoiatzean baserri bateko belarrak etxeratzen ditugu.

Gurasoen baserriari zuk eusten diozu. Zure aukera izan da baserrian golditzea?

Duela 12 urte aita hil egin zen. Orduan ama eta hirurak bizi ginen baserrian. Azinda asko genuen, eta ama bakarrik gel-ditu zen. Amak bakarrik ezin zuen dena eraman, eta amari laguntzeko gelditu nintzen. Asmoa nuen nonbaiten lanean hastekoa, baina oharutzerako hamabi urte pasa dira. Beti beste lan batean hasi behar nuela esaten nion neure buruari baina hemen gelditu naiz. Horrela ere gustura bizi naiz. Bulegari ikasketak egin nituen, eta bulegoren batean edo hasiko nintzela uste nuen. Ilusio horretan nenbilen, baina bizitzak beste bide batetik eraman nau. **Gustura egotea da garrantzitsuena.**

Bai, halaxe da. Lan hau gogorra da baina abantailarik ere badu, inork ez dizu agindurik ematen. Egunen batean hamarretan jaikitzen banaiz, inork ez dit errieta egiten, behiaren batek marru enginen du edo astoek arrantza, baina basteriek ez. **Ez duzu bakardadea sumatzen?**

Ez. Jadanik ohitu naiz. Ederki kosta zitzaizdan egokitzea. Ama hil zenean, duela bost urte, hasieran oso gogorra izan zen. Berez, lan gogorra da, eta baserriari bakarrik bizi nintzen eta neguan ordu asko argirik gabe pasatzen dituzu, gaizki pasa nuen. Baina tira, denborarekin dena moldatzen dela esaten dute eta orain gustura nago. Oso zoriontsu bizi naiz hemen. **Udan oporrak hartzen al dituztu?**

ATSEDEN GABE

«Ez dut oporrak; edonora joaten banaiz, norbaitek etorri behar du lanera eta ez naiz inora joaten»

Ez dut oporrak hartzen. Ni joaten banaiz, norbaitek etorri behar du baserriera lanera, eta beti fabore bila ez ibiltzeagatik ez naiz inora joaten.

Noiz izan zinen azkeneko oporretan?

Lanbide Heziketako ikasketak bukatu nituenean. Mallorcan (Balear Uharteak) izan nintzen, 19 urterekin. Orain 33 ditut, pentsa. 14 urte pasa dira. Gerroztik bi aldiz Nevadan (AEB) izan naiz. Baina aizkora erakustaldiak nituelako joan nintzen, ez oporretara.

Baserritik bazia ateratzea ez da erraza. Nola moldatzen zara?

Baserritik bakarrik ez naiz bizi. Baditut gauza gehiago. Ez naiz ohiko baserriarra. Ferietan talaok egiten eta saltzen ibiltzen naiz laguntzaile talde batekin. Toki askotara iristen gara horrela. Hainbat tokitako Olentze-roetarako behar diren abereak ere guk eramatean ditugu. Horiek ere diru iturriak dira. Nire lana askotarikoa da. Gainerakoan ezinezkoa da bizitzea.

Baserritar asko baserria utzi eta kalera jaitsi dira, baserriko lana gogorra izateaz gain ez delako errentagarria. Zu, aldiz, baserrian gelditu zara.

Aipatu dizkizudan beste diru iturri horiek ditudalako, bestela ez dago deus egiterik. Lehen azinda handia genuen baina joan den urtean asko kendu egin nituen. Orain 10 behi, 14 behor, 6 asto, ehun ardi eta txerri batzuk eta antzarak eta oiloak ditut. Bueno eta betizuak Leitzalarrean.

Ezin zenuen guztia eraman?

Ez, lan gehiegi zen eta probetxu gutxi. Joan den urtean asto asko saldu egin nituen eta behiak eta ardiak ere bai. Ama hil zen urtean 107 behi nituen eta negua pasa nuen haiek gobernatzen, ezinean ibili nintzen. Orduan kito esan nuen. Pentsal, 70 behi nituen Leitzalarrean negu guztian jana emateko. Elurra egiten zuenean 40 fardo belar zabaldu behar nituen, hura ez zen samurra izan. Nire buruari galdetu nion, noizrentzat ari naiz lanean? Behar duenak egin dezala, pentsatu nuen. Bete aurrezten eta aurrezten, xuhur baino xuhurragoa ibiltzen nintzen. Niretzat pixka bat egin eta bestela bizi behar dela pentsatu nuen. Orain dudan azienekin batera ez dudala iruditzen zait. Badakizu ze

BIZIMODUA

«Baserritik bakarrik ez naiz bizi; nire lana askotarikoa da, gainerakoan ezinezkoa da bizitzea»

aldea dagoen 10 behiri edo 70 janaria ematean.

Zure aita, Esteban Saralegi zena, aizkolarik prestatzen ibili zen urte franko. Mieltxo harria jasotzen ibiltzen den arren, beste bi anaia badituzue aizkora aritutakoak. Aizkolarari etxean ikusitakoagatik hasi zinen?

Bai eta gehiena Gabriel anaia tematu zelako. Bretainian urteoro erakustaldi bat egiten zuten, eta zerbait berria eramateko eskatu zioten anaia. Anaia neskak eramateko pentsatu zuen. Maribi, Otsagabian bizi den ahizparekin batera hasi nintzen aizkora. Hamazazpi urte nituen, eta beste 10 urte eman nituen. 27 urte bete nituen arte aritu nintzen aizkora.

Zergatik utzi zenuen?

Aspertu egin nintzen. Goizean bazenuen erakustaldia bidean bazkaldu eta etxera etortzerako, iluntzea zen. Arratsaldean bazenuen, berriz, arratsalde guztia horretan ematen zenuen. Baserrian lana bazenuen lasterka eta modu txarrean egin behar izaten nituen etxeko lanak. Erakustaldi asko izaten genituen gainera, eta aspertu egin nintzen.

Gogorregia zen edo?

DI-DA BATEAN ▶

Kirolari bat?

Nazabal

Janari bat?

Jateko dena da ona. Denak gustatzen zaizkit

Bizitzeko leku bat?

Leizta. Bueno Donostia era asko gustatzen zait.

Oporretako beste leku bat?

Australia.

Irakurri duzun azken liburua?

Ez zait gustatzen irakurtzea. Ez dakit denbora ez dudalako den edo ez naizelako horretara jarri.

Lanetik kampo egitea gustatzen zaizun zerbait?

Lasterka ibiltzea. Astean lau aldiz-edo joaten naiz Leitzalarreara lasterka. 10 kilometroko bideari eusten diot. Ibi-lari behar nuenean ez nintzen ibiltzen eta joan den urtean hasi nintzen.

Astea edo asteburua?

Iguaitz bat dira, bueno asteburuan parrandarekin batera egiten dut.

AIZKOLARIA

«Aizkora aritzeari utzi nion aspertu egiten nintzelako; herri kirolak gogorrak dira emakumeentzat»

Ez bereziki. Entrenatu ere gutxi egiten nintzen. Gainera, nirekin aizkora aritzen ziren neskek ere utzi egin zuten. Ahizparekin hasi nintzen erakustaldiak egiten. Hark utzi eta Maika Aristegikin jarraitu nuen eta gero Itziar Goenagarekin. Azken bi urteak Jon Rekondo leitzararekin egin nituen. Bestalde, beti maila berean nengoela ikusi nuen. Ez nuen hobetzen eta azken urtean oso justu ibili nintzen. Horregatik kito egin nuen, alde guztietara ezin iritsiz ibiltzen nintzen, eta horrela aritzeak hobe zen garai zuzte. Herri kirolak gogorrak dira emakumeentzat eta bultzatu ere ez da egiten.

Gainera, kirol garestia dela esaten dute.

Bai halaxe da. Aizkoratik bizitzea ezinezkoa izateaz gain, entrenamenduetan diru asko gastatzen da. Aizkora onak behar dira, egurra ere ona eta asko behar da. Hori du okerre-na kirol honek, garestia dela oso.

Zer eman dizu aizkorak?

Jende asko ezagutzeko aukera izan dut. Eta toki askotara ailegatu naiz aizkorari esker, eta Ameriketako Estatu Batuetara ere bi aldiz horregatik joan naiz.

Bitxikeriak ere gertatu izan zaizkizu.

Ameriketako Estatu Batuetan jendea harrituta gelditzen zen neska bat aizkora ikustean. Badago asko estimatzen zaituen jendea. Opariak ere egin izan dizkirate. Ameriketara bigarren bidaian emakume batek sekulako oparia egin zidan. Ez nuen ezagutu ere egiten, eta opari bat eman zidan. Euskal Herriari gonoz batzuen esanak entzuen behar izan ditut. Kritika gehien adineko jendeak egin dizkit.

Nolako kritikak?

Zen jendea kamisetarekin aritzen zara eta aizkorarekin egurra jotzean makurtzen zareanean eskotea ikusten da. Plazara titiak erakustera edo joan ote nintzen entzun nuen.

Orain ez dabil emakumerik aizkolarian lanetan. Hasi zinezkoak asko aldatu da?

Gogorra da eta ez da erraza. Orain gehiago entrenatzen dira gimnasioan, eta koinatua eta ilobak aritzen dira orain. Elikadura ere orain lehen baino askoz ere gehiago zaintzen da. Garai batean, babarrunak eta

txuletak jaten ziren, hori zela ona esaten ziguten. Orain pasta asko jaten da.

Baserriko lanaz gain, taldea egiten ibiltzen zara feriaz feria, hainbat tokitako olentze-roetan ere parte hartzen duzu baserriko animaliekin eta Santo Tomaseta Donostia txerria zuzen eramatean duzu. Nondik ateratzen duzu denbora hainbeste lanetarako?

Ongi antolatzea da kontua. Lan handia da, baina urtean nik nahi baino gutxiago izaten ditut feriak.

Egun horietan norbaitek laguntzen dizu baserrian?

Goizean oso goiz joan behar badut, bai, anaia bategi etortzen da laguntzera baina bestela ez. Bakarrik moldatzen naiz.

Nondik duzu plazara ateratzeko joera hori?

Gure aita saltsero hutsa zen eta uda guztia plazaz plaza ematen zuen, ahari apustuak ez bazituen, astoak eraman behar zituen norabaitea. Beti bazuen zerbait. Etxean betidanik ikusitako gauzak dira orain egiten ditudan gehienak. Iruñeko Olentzerora joaten ez dakit zenbat urte daramagun. Lan guztiak aurrera ateratzeko txorratuta ibiltzen naiz denbora gutxiago gauza asko pilatzen direlako, baina ahal dudana arte aurrera segituko dut.

Zain da garai okerreana?

Boladak izaten dira. Azken hilabetean erotuta nabil. Asteburuan kilometroak ditut, berehala Nafarroa Oinez eta gero Eguberriak prestatzen hasiko naiz. Ez dugu olentzero bakarria egiten. Iruñeko, Barañaingoa, eta Burlatakoa egiten ditugu. Eromena izaten da, lan asko baita denbora gutxian. Etxean ditugun animalia guztiak ematen ditugu, oiloak, eta ahateak bakarrik gelditzen dira etxean. Gabon-gaueko afaria laster egiten dut. Leher eginda iristen naiz etxera eta ohera sartzera da dudana pentsamendu bakarra.

Etorkizunean ere, zure burua baserrian bertan ikusten al duzu?

Etorkizunean ez dut pentsatzen, egunerokoa bizitzen dut eta ez dut pentsatu nahi geroan. Egunerokoa bizi behar dela uste dut eta horretan saiatzen naiz.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. *zeuk idatzi* atalera jo besterik ez duzu. Zure datuak ere jartzea komenigarria da. ▶

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Urriaren 21an Vianan ospatuko den Nafarroa Oinez 2007ra joateko autobusa antolatuko du Udalak. Izen-ematea, udal bulegoetan, 5 eurotan. **Larraul.** Larraulgo lurretik barrena ingurua ezagutzeko mendi ibilaldia, hilaren 28an. Argibide gehiago, 943 69 39 30 telefono zenbakian. **Berastegi.** Urari buruzko argazki rallya Berastegin. Bihar jasoko dituzte Berastegiko mugen barruan parte-hartzaileek egin dituzten argazkiak. **Zizurkil.** Teodoro Hernandezena 6. Ipuin Lehiaketa antolatu du Udalak Aitzondo bailarako herritarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udalbeheetan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino de Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar izango da ikusgai. **Ibarra.** San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Ibarroa Benito Izagirre kultur etxean asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara bitarte. **Tolosa.** Calcuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburuetan itxita). **Villabona.** Emakume ikusezina erakusketa Villabonako Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

ZINEMA

Tolosa. *Sigo como Dios* filma, 22:30ean, Leidor aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, L. Amarotz, 9. 943 67 51 18.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Adiskidetasun baloia

TOLOSA ▶ Munduko 12 herrialderen arteko lehia atzo hasi zen Tolosako Usabal kiroldegian; gaur eta bihar baloiki ez du atsedenek izango



Txapelketako lehen partida Euskal Herriak eta Palestinak jokatu zuten Usabal kiroldegian. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Adiskidetasunaren Txapelketa atzo goizean hasi zen, Euskal Herria eta Palestinaren arteko partidarekin. Hiru egunetan zehar, munduko 12 selekzio eta herrialde, lehiari arituko dira Tolosako Usabal kiroldegian. Lau taldeetan banatu dituzten herrialdeak hauek dira: Euskal Herria, Palestina, Herrialde Katalanak, Galizia, Pakistan, Ukraina, Extremadura, Ekuador, Senegal, Andaluzia, Esperantza Latinoa eta Maroko. Atzokoan 12 partida jokatu zituzten, ondorioz, gaur jokatuko diren final-laurdenak erabakita geratu ziren. Antolatzaileek, Euskal Herria eta Extremadura jotzen dituzte favorito. Etxekoek jokatutako bi partidak irabazi zituzten A multzo-



Euskal Herriko entrenatzailea, jokalariekin gustura ez eta bere burua zigortzen. A. IMAZ

an, Herrialde Katalanak eta Palestina garaituz, hain zuzen ere. Extremadurak berriz, joku bikaina erakutsi zuen, Ekuadorri esaterako, 16 gol sartu baitzizkioten. 10:30ean hasiko da gaurko jardunaldia. Lau partida jokatuko dituzte goizean eta garai-leek, arratsaldean finalerdiak jokatuko beharko dituzte 17:00etatik aurrera. Txapelketaren finala berriz, bihar 18:30ean jokatuko da. Usabal kiroldegian beraz, egun hauetan herrialde ezberdinetako jokalariek, batez ere, jarraitzaileen kolore eta oihuak ikusteko aukera bikaina egongo da, baloia aitzakiatzat hartuta adiskidetasuna bultzatzeko helburuarekin.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburesak
 Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldegia
 Tolosa Tel.: 943 577573
 www.bidebide.es

bidebide
 restaurantebarr